

Bitartekoa

Euskaldunon Egunkaria, 1995-10-11: 2.

Ehun eta berrogeita hamar eguneko marka handia iragana da dagoeneko Jose Maria Aldaia bahitu zutenetik. Dagoeneko, diot, bere familiak bakarrik du egunez eguneko honen kontzientzia zehatza. Eta, halere, oso zaila den arren, bada familiatik kanpo beste norbait tirabira ezkutu eta ezberdin honetan pieza sentibera dena: "Bitartekoa".

Gure herrian tarteko izan ditugun hainbat istiluetan aipatzen ari garen hau bezain larriak izan ez direnean, "zubigileak" deitu izan diegu sarri, baina gaurkoan bezain izugarri direnean errespetu handiko Artekaria edo Bitartekoa da, gutxienez. Ez baita tarteko hizkuntza idatziko "h" baten kontua, bizi baten auzi beldurgarria baizik; ez baita aurreritzi xume bat, pertsonaren desagertze batek bere sendiarengan sortu duen hondogabeko zuloa baizik. Eta bitartekoa, biziaren bat bateko hutsarteak hasera duen isilaldiren lehen zentinelada, ez gutxiago. Egunero egin behar du zerbait.

Igurikigabekoaren itzaropena da!, eta egunero eman behar ditu kontuak emaztearen eta haurren begietara oso kontuz so egiterakoan. Dena eta ez dena hain gertu daude eguneroko gertakizun edo uste berrietan! Halere ezin du kamus datorrenak hutsik datorren egunik iragarri, eta oraindik ez gara bahituaren asmoen mundura hurbildu, kanpotik begiratzen hasi baino, familiazkoak bai baitute senarra eta aitaren sentsibilitatera alboratzeko susmobide ezkutu eta ekidin ezina. Nola bitartekotu hau dena, bestalde, errotik hain desberdina den beste muturreko munduarekin?